

## M.U. Cumulus Sarean sartu da. Diseinu eskolen munduko sare prestigiotsua da Cumulus

2007/07/26

Mondragon Unibertsitatea Cumulus Sareko kidea da. Diseinu-eskolen nazioarteko elkarte prestigiotsua da Cumulus. Schwäbisch Gmünd-eko (Alemania) azken Biltzarren ondoren sartu da Mondragon Unibertsitatea aipatutako sarean. Gaur egun, 124 kide ditu guztira. Unibertsitateak hamarkada bat darama Industri Diseinua garatzen, eta alor horretako esperientzia izan da, hain zuzen, MU elkartean sartzeko oinarri nagusietako bat.



Cumulus Sarea 1990ean sortu zuten Helsinkiko Arte eta Diseinuko Unibertsitateak eta Londreseko Royal College of Art ikastetxeak, Austria, Alemania, Holanda eta Danimarkako beste unibertsitate batzuekin elkarlanean. Unibertsitateen arteko ezagutza-transferentziaren bidez hezkuntzaren kalitatea hobetzea zuten helburu. 2001ean sarea elkarte bihurtu zen, eta gaur egun kideen artean era guztietako herrialdeak daude: besteak beste, Brasil, Kanada eta Korea.

Cumulus Sareak diseinatzeko erabiltzen duen metodologia eta Mondragon Unibertsitatearena oso antzekoak dira. Beraz, proiektuak bateratzeko eta lantzeko aukera ugari sortuko dira. Era berean, sarean sartu ondoren, hainbat alorretan egiten ari den lana munduan ezagutzera eman ahal izango du MUK. Alor horietako batzuk ekodiseinua, packaging-a eta ergonomia dira.

Diseinuren inguruan oso ikuspegi anitzak daude. Frantzia, adibidez, diseinua Arte Ederren departamentuetan lantzen dute, Italian Arkitekturari lotuta dago, eta Espainiako Estatuan, berriz, Ingeniaritzako Fakultateetan irakasten da maiz. Mondragon Unibertsitateak enpresamundutik oso hurbil kokatzen du industri diseinua, bere sistemaren eta enpresen beharren arabera moldatuz. Izan ere, eskola askori enpresamunduarekiko lotura hori falta zaie.

Cumulus Sarean sartu ondoren, kanpora joateko aukera berriak izango dituzte Mondragon Unibertsitateko ikasle askok, eta sareko kide diren unibertsitateetan eta nazioarteko zentroetan osatuko dituzte ikasketak. Gainera, atzerritik datozen eraginei ere sarbidea emango zaie MUN. Horrela, sareko unibertsitateko ikasleek Euskadira eta Mondragon Unibertsitateera etorri eta bertako filosofia ezagutu ahal izango dute.

Ezbairik gabe, esperientzia aberasgarria da Mondragon Unibertsitatearentzat, alegia, bertako ikasleentzat, irakasleentzat, unibertsitatearentzat berarentzat, enpresentzat eta, jakina, gizarte osoarentzat.